

**IRAKURKETA ERRAZA**  
**HERRITARTASUNAREN,**  
**IMMIGRAZIOAREN ETA**  
**ASILOAREN**  
**KULTURARTEKO VI. PLANA**  
**2022-2025**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Dokumentu hau jatorrizko testuaren bertsio egokitua da. Informazio osoa jasotzen duen jatorrizko dokumentua hemen dago eskuragarri:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

**Argitaraldia:**

1.a, 2022ko maiatza

**Ale-kopurua:**

100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

© **Ilustrazioen:** Mercedes Corretge

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketazioa:**

Mercedes Corretge

**Irakurketa errazerako egokitzalea:** Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

**Inprimaketa:**

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**



Logo honek IFLAren (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe erakundearen nazioarteko jarraibideak betetzen dituzten materialak identifikatzen du

# Aurkezpena

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu naizen aldetik, atsegin handiz aurkezten dut Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025).

Plan honek aurreko planean garatu ziren ildoak eusten ditu eta aurrerapauso batzuk ere ematen ditu, ekintza berriak jasotzen baititu, hala nola immigrazioaren eta asiloaren arloetarako Zuzendaritza sortzea. Immigrazioa eta asiloa plan berean elkartzea oso neurri egokia izan da, egungo euskal gizartearen behar gehiagori erantzuteko aukera ematen baitu.

Plan berri honen ardatza Euskadin bizitzen geratzen diren etorkinen premiak dira, gure Erkidegoan aldi baterako bakarrik dauden etorkinen beharrak baino gehiago.

Plan honen bidez, pertsona horiei orainaldian eta etorkizunean arreta eman nahi zaie eta Euskadin gizarte, lan, hezkuntza eta hizkuntzaren esparruetan integratuta egon daitezen ahalbidetu. Arreta berezia eskaintzen die talde jakin batzuei, adibidez: atzerritar jatorriko emakumeei eta Euskal Autonomia Erkidegora familiaren laguntzarik gabe iristen diren adingabe eta gazteei.

Bere helburuak lortzeko, plan honek kultura-aniztasunean, kulturartekotasunean, tratu-berdintasunean, diskriminaziorik ezan eta desberdina izateko eskubidean oinarritutako Euskal Eredu bat du. Printzipio horiek guztiak dokumentu honetan azaltzen den neurri sorta baten bidez jarriko dira praktikan.


Pertsona eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditut plan honen garapenean laguntzera, plana egitean azaldutako gogo bizi berberarekin.

**Beatriz Artolazabal Albeniz,**  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Herritartasunaren, Immigrazioaren, eta Asiloaren Kulturarteko **6.** plana



# Aurkibidea

- **EZAGUTU BEHAR DITUZUN TERMINOAK** ..... **6.** orrialdea
- **SARRERA: Immigrazioa Euskadin** ..... **7.** orrialdea

## 6. PLANA

- Zer da? ..... **10.** orrialdea
- Zer printzipiotan oinarritzen den? ..... **10.** orrialdea
- Zer lortu nahi du? ..... **11.** orrialdea
- Nola dago antolatuta?..... **12.** orrialdea
- Nola dago egituratuta? ..... **13.** orrialdea
- Nola egin da?: Metodologia ..... **14.** orrialdea
- Zenbat kostatuko da? Aurrekontua ..... **15.** orrialdea
- Nola ebaluatuko da? ..... **15.** orrialdea

## JARDUTEKO PROPOSAMENAK

- **ESTRATEGIKOAK** ..... **17.** orrialdea
  - Euskal Itun Soziala
  - Euskal Harrera Eredua
  - Euskarri
  - Atzerritar jatorriko emakumeak
- **ANTOLAKUNTZAKOAK** ..... **25.** orrialdea
  - Eragileen koordinazioa
- **PROGRAMATIKOAK** ..... **29.** orrialdea
  - Hezkuntza
  - Enplegua eta prestakuntza
  - Bizikidetzaz
  - Hizkuntza
  - Osasuna

# Ezagutu behar dituzun terminoak...

**Asiloa.** Bere herrialdetik ihes egin duen atzerritar jatorriko pertsona bati estatu batek egiten dion harrera eta ematen dion babes. Beren herrialdean beren giza eskubideak gauzatzerik ez dutelako eskatzen dute asiloa pertsonak.

**Herritartasuna.** Herritarrak lurralde batean bizi diren pertsonak dira. Herritartasunak komunitate bateko kide izatea esan nahi du, herritar guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izatea eta lurralde horretan eragina duten gaiei buruz erabaki ahal izatea, pertsona bakoitzaren nazionalitatea edo jatorria kontuan hartu gabe.

**Bizikidetzak.** Komunitate batean beste pertsonen izaera eta jokamoldea errespetatuz eta legeak ezartzen dituen arauak betetzeko gaitasuna da.

**Giza Eskubideak.** Pertsona guztiok izan behar ditugun eskubideak, gure jatorria, adina, sexua, larruazalaren kolorea, hizkuntza, erlijioa, bizilekua edo beste edozein inguruabar kontuan hartu gabe. Honako hauek dira giza eskubideak, besteak beste: bizitzeko eskubidea, adierazpen-askatasunerako eskubidea, heziketa jasotzeko eskubidea eta lan egiteko eskubidea.

**Diskriminazioa.** Pertsona edo kolektibo bat desberdin tratatzea, jatorriagatik, larruazalaren koloreagatik, adinagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik edo beste arrazoi batzuegatik.

**Kultura-aniztasuna.** Munduko talde eta gizarte guztietako kulturen adierazpideak. Kultura guztiek balio bera dutela eta batzuk besteak baino hobeak ez direla ulertzean datza kultura-aniztasuna. Berdin dio jatorria, hizkuntza edo erlijioa zein den.

**Immigrazioa.** Beste leku batean jaio ziren eta herrialde edo eskualde berri batean bizitzen geratu nahi edo behar duten pertsonak herrialde edo eskualde horretara iristea.

**Kulturartekotasuna.** Lurralde berean jatorri edo nazionalitate desberdineko pertsonak elkarrekin bizitzea eta beren kulturen ezaugarriak partekatzea, elkarrizketan eta guztiekiko errespetuan oinarrituta.



# Sarrera: Immigrazioa Euskadin

---

Munduko hainbat herrialdetako gero eta pertsona gehiago datoz Euskadira bizitzera.

Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) datuen arabera, EAEko biztanleen % 11 baino gehixeago atzerrian jaiotakoak dira.

Horren ondorioz, gaur egun Euskadi XXI. mendearen hasieran baino askotarikoagoa da kultura-arloan.

Eta gero eta gehiago izango da, datuek erakusten baitute Euskadira datozen atzerritar gehienak Erkidego honetan geratzen direla.


Hori dela eta, Euskadik Euskal Eredu bat behar du gure lurraldera hainbat arrazoiengatik etortzen diren atzerritarren etorrera eta geratzea kudeatzeko.

Eredu horrek kultura desberdinei eta horien egoera eta premia desberdinei erantzun behar die.

Euskadin bizi diren pertsona guztiak gizarteratzeko mekanismoak jarri behar dira martxan, haien jatorria edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.

Eredu malgua izan behar du, une bakoitzean iristen diren pertsonen egoera desberdinak kontuan hartzeko.

Adibidez, azken urteotan asilo-eskaera gehienak gatazka larriak dituzten herrialdeetako pertsonenak izan dira, adibidez: Venezuela eta Afganistangoenak. Horrez gain, familia-laguntzarik ez duten adingabe eta gazte atzerritar gehiago iritsi dira; batez ere, Afrika iparraldeko herrialdeetatik.



## **Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko**

**6. Plana 2022-2025** Euskadiko gaur egungo immigrazio-egoerari erantzutea eta datozen urteetan Erkidego honetara iritsi eta bertan biziko diren pertsonen egoerez arduratzea du helburu.

Plan hau garatzeko 4 elementu nagusi daude:

**1. Migraziorako Euskal Itun Soziala.**

**2. Euskal Harrera Eredua.**

Asiloa eskatzen duten pertsonen ere arreta emango die.

**3. Euskarri estrategia,** Euskadira senide heldurik gabe iristen diren adingabe eta gazte atzerritarrentzat.

**4. Atzerrian jaiotako emakumeen errealitate soziala.**

Plan honek bere antolaketarako beharrezkoak diren elementuak hartuko ditu kontuan.

Bereziki, planean lan egiten duten pertsonen eta erakundeen arteko koordinazioa eta horietako bakoitzak bete behar duen zeregina.


Gainera, planean neurri zehatzak proposatzen dira honako alderdi garrantzitsu hauek hobetzeko: hezkuntza, enplegua, bizikidetzeta, hizkuntzen ikaskuntza, osasuna, etxebizitza, laguntza juridikoa eta ekonomikoa.

6. Planak aurreko planarekin egindako lanari jarraipena ematen dio (2020an amaitu zen).

5. Planak emaitza onak lortu zituen, baina bere printzipio eta jarduera batzuk ez ziren ondo zehaztu eta ezin izan ziren bete.

Plan berri honekin jarduketa horiek zehaztu eta hobekuntzak egin dira, hurrengo ataletan azaltzen den bezala.





**b.**  
**Plana**

# Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko 6. Plana (2022-2025)




## Zer da?

Eusko Jaurlaritzak datozen 4 urteetan garatuko duen immigrazio-politikaren ildo nagusiak zehazten dituen dokumentua da.

Euskadin bizi diren pertsona guztiek, haien kultura edo jaioterria kontuan hartu gabe, eskubide eta aukera berberak izatea lortzea da politika horren helburua.

Dokumentu honetan, pertsona guztien desberdintasunekiko errespetua bultzatu, kultura desberdinak ezagutzen lagundu eta haien arteko harreman ona sustatzeko hainbat helburu eta ekintza aurkezten dira.

6. Plan honen asmoa kulturartekotasunean oinarritutako euskal eredu bat eraikitzeko tresna egokia izatea da.



## Zer printzipiotan oinarritzen da?

Plan hau funtsezko 3 printzipiotan oinarritzen da:

### **1. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa**

Euskadin bizi diren pertsona guztiek aukera, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituzte, zer herrialdeetakoak diren eta zer jatorri duten kontuan hartu gabe.

### **2. Desberdintasun kulturalerako eskubidearen eta errespetuaren printzipioa**

Kultura guztietako pertsonak beren kultura erakusteko aukera berberak izan behar dituzte, betiere legea errespetatzen badute.

Euskadin bizi diren kulturen nahasketak euskal gizartea demokratikoagoa, parte-hartzaileagoa eta solidarioagoa izatea eragingo duela kontuan hartzean datza.

### **3. Kulturen arteko harreman positiboaren printzipioa**

Kulturarteko eredu batean, eskubide-berdintasuna baldin badago, kultura desberdinetako pertsonen arteko harremanak, komunikazioa, ezagutza eta hurbilketa hobeak dira.

Euskadin bizi diren pertsona guztiek Erkidegoaren etorkizuna eraikitzen parte hartzeko eskubidea izan behar dute, zein herrialdeetatik datozen kontuan hartu gabe.


Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuek bezala, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko 6. Planak (2022-2025) oso kontuan hartzen ditu honako alderdi hauek:

**Giza eskubideak.** Plan hau desparekotasunaren, diskriminazioaren eta mota guztietako indarkeria eta bazterkerien aurkakoa da. Plan honetan, giza eskubideak justiziarekin eta gizatasunarekin lotzen ditugu.

**Genero.** Plan honetan, atzerrian jaiotako emakumeen gizarte-errealitatea hobetzeko neurriak hartzen dira. Kontuan izan behar da emakume horiek askotan diskriminatu egiten direla faktore hauek guztiak bateratzen dituztelako: emakumeak izatea, atzerritarrak izatea, hizkuntza ez jakitea eta herrialdean egoteko legezko dokumentazioa ez izatea.

**Euskara eta gaztelania ezagutzea.** Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea eta erabiltzea atzerritarrak gure gizartean integratu ahal izateko ezinbesteko baldintza da.

Euskara eta gaztelania ondo ezagutzen badituzte, errazagoa izango zaie ingurunea ezagutzea, besteekin harremanak izatea, prestakuntza handiagoa jasotzea eta lanpostu bat aurkitzea.



## Zer lortu nahi du?

- Euskal gizartea herritar guztien eskubide eta betebehar-berdintasunean oinarritzea eta Euskadin bizi diren pertsona guztien kultura-aniztasuna errespetatzea.
- Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredu bat eraikitzea, kulturartekotasunean eta lurralde berean bizi diren kulturen arteko benetako bizikidetzan oinarritua.
- Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko 6. Plan honetan (2022-2025) proposatzen diren neurri estrategikoak, antolaketa-neurriak eta programatikoak betetzea.

## Nola dago antolatuta?

Immigrazioaren eta asiloaren sektorean hainbat pertsonak eta erakundeak egiten dute lan.

Mapa horretako elementu guztiak –bai Eusko Jaurlaritzaren mendekoak, bai kanpokoak– koordinatu, komunikatu eta lankidetzan aritzeko, sistema indartu egin behar da.



**Udalak:** kulturartekotasun, bizikidetzeta eta immigrazioaren arloko teknikariak.

**Aldundiak:** kulturartekotasun, bizikidetzeta eta immigrazioaren arloko teknikariak.

**EJko sailak:** Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak; Enplegua; Hezkuntza; Giza Eskubideak; Hizkuntza Politika; Etxebizitza; Osasuna...

**Espainiako Gobernua:** Lurralde-ordezkariordeztzak, Kotsulatuak.

**Arartekoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, beste unibertsitate batzuk...**



**HIRUGARREN SEKTOREA  
ETA BESTE BATZUK**

Etorkinen **erakundeak** eta etorkinentzat lan egiten dutenak, boluntarioenak.

**Sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, alderdi politikoak, unibertsitateak.**

6. PLANAREN EGITURA				
NEURRI MOTAK	NEURRIAK		FUNTSEZKO EGINKIZUNA	EKINTZA KOP.
<b>Estrategikoak:</b> Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Eredua eraikitzea	<b>Migraziorako Euskal Itun Soziala</b>		Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	<b>32</b>
	<b>Euskal Harrera Eredua (Asiloa)</b>			
	<b>Euskarri estrategia:</b> adingabeak eta 21 urte bitarteko gazteak			
	<b>Atzerritar jatorriko emakumeak</b>			
<b>Antolaketa-neurriak</b>	Kulturartekotasun, immigrazio eta asiloan lan egiten duten eragile, erakunde eta instantzia guztiak <b>sinkronizatzea eta koordinatzea</b>		Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	<b>32</b>
<b>Programatikoak</b>	<b>Lehentasunezkoak</b>	Hezkuntza	Hezkuntza Saila	<b>59</b>
		Enplegua eta prestakuntza	Lanbide	
		Bizikidetza	Udalak	
		Hizkuntza-politika	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza	
	<b>Osagarriak</b>	Osasuna	Osasun Saila	
		Etxebizitza	Etxebizitza Saila	
		Juridikoa	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	
	<b>Eragileei laguntzekoak</b>	Ekonomikoa	Migrazio eta Asilo Zuzendaritza	
		Ikerketa	Ikuspegi	
GUZTIRA				<b>103</b>

## Nola egin da? Metodologia

2021

5. Planaren (2018-2020) ebaluazio-txostena. Ondorioak eta gomendioak kontuan hartu dira.

### Parte-hartze prozesua

Maiatza-  
ekaina

**Helburua: Focus group-en iritziak ezagutzea eta lankidetzak. 14 bilera. Parte-hartzaileak:**

- Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko batzordeak.
- Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariak.
- Biltzen eta Ikuspegiko langileak.
- Udaletako eta foru-aldundietako teknikariak.
- Akademiaren eta enpresaren esparruetako adituak.
- Hirugarren sektorea.

Iraila-  
azaroa

**Helburua: 6. Plana lantzea eta idaztea Focus group-a. 14 bilera. Parte-hartzaileak:**

- Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko batzordeak.
- Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikariak.
- Biltzen eta Ikuspegiko langileak.
- Udaletako eta foru-aldundietako teknikariak.
- Akademiaren eta enpresaren esparruetako adituak.
- Hirugarren sektorea.

Apirila-  
azaroa

**Helburua: Planaren lankidetzaren jarraipena. Focus group-a. 14 bilera. Parte-hartzaileak:**

2 kontraste-talderen bilerak.  
Parte-hartzaileak: Immigrazio Zuzendaritza eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.

Abendua


**Helburua: ekarpenak eta iradokizunak jasotzea. Zirriborroa.** EJko Sailari, Foru Aldundiei, Eudeli eta beste erakunde batzuei bidaltzea.

Abendua

Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Osoko Bilkura, behin betiko plana ezagutarazteko.

PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA: 130

## Zenbat kostatuko da? Aurrekontua



## Nola ebaluatuko da?

Plan honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, bi ekintza nagusi egingo dira:

- **Jarraipen Batzordea sortu.** Planaren ekintzen ardura duten erakunde eta elkarteetako kideek osatuko dute.

Batzorde horrek Planaren etengabeko jarraipena egingo du, zenbait helburu eta ekintza aldatzeko, beharrezkoa izanez gero, eta berriak planteatzeko.

Urte bakoitzaren amaieran, Batzordeak planean egindako aurrerapenei buruzko txosten bat emango du.

- **Planaren azken ebaluazioa, 2025. urtean.** Ebaluazio-txosten bat egingo da, proposatutako ekintza guztiak zenbateraino bete diren jakiteko.

## Jarduteko proposamenak

**103 ekintza** proposatzen dira Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko 6. Plana betetzeko.

Ekintza horiek honako 3 arlo hauetan banatzen dira:

➤ **NEURRI ESTRATEGIKOAK**

➤ **ANTOLAKETA-NEURRIAK**

➤ **NEURRI PROGRAMATIKOAK**

Arazoak konpontzea edo horiei erantzun bat ematea da ekintza horietako askoren helburua.

Beste ekintza batzuen helburua, berriz, Euskadin bizi diren kulturen artean bizikidetza-giro ona eta gizarte-batasuna sortzea da, etorkizunean gatazka-egoerarik sor ez dadin.






# Jarduteko proposamenak



Plan batek lortu nahi diren helburuak betetzeko jasotzen dituen ekintzak dira neurri estrategikoak.

Jarraian, neurriak zein diren, zer helburu duten, zer ekintza nagusi jarriko diren abian, nork gauzatuko dituen eta zein epetan egingo duen azalduko da.



# Migraziorako Euskal Itun Soziala

## Zer lortu nahi dugu?

Euskal gizarte osoari aplika dakioken itun bat garatzea.

## Zer egingo dugu hori lortzeko?

### 1. Migraziorako Euskal Itun Soziala Euskadiko udalerrietara zabaltzeko kanpaina bat.

**Noiz?:** 2021 eta 2022an.

### 2. Migraziorako Euskal Itun Soziala azaltzen eta zabaltzen laguntzeko materialak sortu.

**Zertarako egingo da?** Udalei beren udalerrietan Ituna garatzen laguntzeko.

**Noiz?:** 2022an.

### 3. Gazteei Itun honen kulturartekotasun-balioei buruz hausnartzen laguntzeko lehiaketa bat antolatuo.

**Zertarako egingo da?** Gazteak Itun honen oinarri diren kultura-aniztasunarekiko errespetuaren printzipioetan inplikatzeko.

**Noiz?:** 2023an.

### 4. Webgune bat eta mugikorretarako doako aplikazio bat sortu, hainbat hizkuntzatan.

**Zertarako egingo da?** Euskadin migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko dauden prozesuei buruzko informazioa emateko.

**Noiz?:** 2023an.

### 5. Migraziorako Euskal Itun Soziala Eusko Jaurlaritzaren beraren barruan zabaldu.

**Zertarako egingo da?** Euskadin migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko dauden prozesuei buruzko informazioa emateko.

**Noiz?:** 2023an.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

## 6. Itunaren Eguna sortu.

**Zertarako egingo da?** Ekintzekin lortzen ari diren aurrerapenak urtean behin aurkezteko.

**Noiz?:** 2023an.

## 7. Aritu-talde bat sortu, etorkinen eskubide eta betebeharrei buruz hausnartzeko.

**Noiz?:** 2022 eta 2024 artean.

# Euskal Harrera Eredua

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Euskadira bizitzera datozen beste herrialde batzuetako pertsoneri harrera egiteko euskal eredu bat abian jartzea.  
Asiloa eta babeska eskatzen dutenak barne.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Euskal Harrera Eredu berriaren funtzionamendua probatzeko lantalde bat sortu.

**Zertarako egingo da?** Eredua hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatzeko modurik onena bilatzeko.

**Noiz?:** 2023 eta 2024an.

#### 2. Azterlan bat egin, etorkinek Euskadin erroldatzeko zer zailtasun dituzten jakiteko.

**Zertarako egingo da?** Atzerritarrek Euskadin erroldatzeko topatzen dituzten era guztietako oztopoak ezagutzeko.

Azterlan honen emaitzak zabaltzeko ere balioko du.

**Noiz?:** 2023an.

Ikuspegik  
ikerketa bat  
egingo du.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritarrei harrera egiteko laguntzei eustea eta hobetzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Asiloa eskatzen duten pertsonentzako harrera-plazei eutsi eta, behar izanez gero, gehitu.**

**Zertarako egingo da?** Eredu hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari txertatzeko modurik onena bilatzeko.

**Noiz?:** 2023 eta 2024an.

**2. Euskadira aldi baterako etortzen diren etorkinentzako harrera-plazei eutsi eta, behar izanez gero, gehitu.**

**Noiz?:** 2022tik 2025era.

**3. Euskadiko Errefuxiatuentzako Babes Komunitarioko Programan lan egiten duten erakundeei lagundu..**

Auzolana II izeneko Babes Komunitarioko Euskal Programaren bidez, euskal herritarrei gure erkidegoan errefuxiatu diren beste herrialde batzuetako pertsonen harrera egiteko eta integratzeko aukera ematen zaie.

**Noiz?:** 2022tik 2025era.

**4. Babes- eta asilo-eskatzailleek legezko laguntza izateko dirua bideratu.**

**Noiz?:** 2022tik 2025era.

**5. Eusko Jaurlaritzak etorkinei harrera egiteko ematen dituen laguntzak berrikusi, mantendu eta antolatu.**

**Zertarako egingo da?** Laguntzak Plan honen helburu eta ekintzekin bat etor daitezten.

**Noiz?:** 2022tik 2025era.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.



# Euskarri Estrategia

Euskadira familia-laguntzarik gabe datozen adingabe eta 21 urtera arteko gazte atzerritarren gizarte-errealitatea eta arazoak tratatzeko programa bat da Euskarri Estrategia.

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko hiru probintzietako aldundiek eta udalerrietako udalek jarri zuten abian programa hori.

## Zer lortu nahi dugu?

Euskarri Estrategiaren garapenean sakontzea eta zer aldaketa eta hobekuntza egin behar diren baloratzea.

## Zer egingo dugu hori lortzeko?

### 1. Idazkaritza bat sortu, Euskarri Estrategiaren lantaldea koordinatzeko.

**Zertarako egingo da?** Lantaldeak abian jartzen dituen ekintzak babesteko eta koordinatzeko

**Noiz?:** 2022an.

### 2. Euskadira familiaren laguntzarik gabe iristen diren gazte atzerritarrei laguntzeko programa bat sortu.

**Zertarako egingo da?** Pertsona horiei beren bizi-proiektua garatzen eta pertsonalki hazten laguntzeko.

**Noiz?:** 2022an.

### 3. Bizi diren gizarte berrira egokitzeko zailtasunak dituzten atzerritar jatorriko hurrei gizarte-laguntza emateko programa bat.

**Zertarako egingo da?** Adingabe horien eskubide-berdintasuna lortzeko eta helduarorako prestatzeko.

**Noiz?:** 2022an.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

**Garatzailea:**  
Agintzari  
eta Peñascal  
Fundazioa

**Garatzailea:**  
SOS Arrazakeria,  
CEAR eta  
Ellacuría  
Fundazioa

#### **4. Euskadira familia-laguntzarik gabe iristen diren atzerritar jatorriko adingabe eta gazteei laguntza ekonomikoa eman.**

**Zertarako egingo da?** Kolektibo horien premia espezifikoari erantzuteko.

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Sailburuordetza, Gizarte Politiketako Zuzendaritza eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022an.

#### **5. Hemen harrera-programarako laguntza ekonomikoa eman.**

Hemen programak Bizkaian atzerritar jatorriko gazteei harrera egiteko beharrezkoak diren ekintzak sortzen ditu.

Gizarte-erakundeek garatzen dute.

**Zertarako egingo da?** Programari eusteko eta Euskadiko probintzia guztietara zabaltzeko.

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Zuzendaritza eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.



## **Atzerritar jatorriko emakumeak**

### **1. HELBURUA**

#### **Zer lortu nahi dugu?**

Atzerritar jatorriko emakumei laguntzea.

Batez ere, hainbat arrazoiengatik desabantaila-egoeran edo babesik gabe daudenei.

#### **Zer egingo dugu hori lortzeko?**

**1. Euskadira bizitzera datozen atzerritar jatorriko emakumeen tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz kontzientziatzeko kanpaina bat.**

**Norentzat da?** Atzerritar jatorriko pertsonentzat eta pertsona horiekin lan egiten duten erakundeentzat.

**Zertarako egingo da?** Informatzeko eta kontzientziatzeko.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2023ra.

## 2. Profesionalei Marokotik etorritako gazteekin lan egiteko prestakuntza eman.

**Zertarako egingo da?** Jatorria Marokon duten gazteei zuzendutako gizarte esku-hartze espezifiko hobetzeko.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

## 3. Euskal emakumeak eta atzerritar jatorrikoak biltzeko eta elkarbizitzan aritzeko guneak sortu.

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko emakumeek komunitateko jardueretan baldintza berdinetan parte hartzea ahalbidetzeko eta parte-hartzea hobetzeko.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

## 4. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeari buruz sentsibilizatzeko ekintzak sortu.

**Zertarako egingo da?** Emakumeek genero-indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari buruz kontzientziazteko.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

## 5. Etxeko langile gisa lan egiten duten atzerritar jatorriko emakumeentzako online prestakuntza-programari eutsi.

**Zertarako egingo da?** Emakume horien lana eta mendeko pertsonen ematen dieten arreta hobetzeko.

**Noiz?** 2023an.

### **Arduraduna:**


Biltzen.

Gizarteratze eta

Kulturarteko

Bizikidetzaren

Euskal Zerbitzua.



## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorriko emakumeekin lan egiten duten erakundeentzako laguntzei eustea eta horiek hobetzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Atzerritar jatorriko emakumeentzako laguntza ekonomikoak berrikusi, mantendu eta antolatu.

**Zertarako egingo da?** Laguntzak Plan honen helburu eta ekintzen arabera eman daitezen.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

#### 2. Erakundeei laguntza ekonomikoa eman, beren lanaren xede diren atzerritar jatorriko emakumeek ezaugarri hauetakoren bat badute:

- Adingaberen baten ardura beren gain izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan mendeko pertsonak zaintzea.
- Herrialde arabiarretatik etorriak izatea, adin nagusikoak eta gizarte-bazterkeria arriskuan egotea.
- Prostituzioan aritzea.
- Indarkeria matxistaren biktima izatea.

**Zertarako egingo da?** Emakume-talde horietako bakoitzaren premia espezifikoei erantzuteko.

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Sailburuordetza, Gizarte Politiketako Zuzendaritza eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

#### 3. Gizarte-ikerketak bat egin, atzerritar jatorriko hainbat emakume-talderen egoera eta premiak ezagutzeko.

**Zertarako egingo da?** Kolektibo horri buruzko informazio gehiago izateko eta erabaki politiko eta sozial hobeak hartu ahal izateko.

**Arduraduna:** Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia.

**Noiz?** 2022tik 2025era.





Planak immigrazioaren sektorean lan egiten dutenen arteko koordinazioa hobetzeko eta Zuzendaritzak sistema horretan duen lidergoa indartzeko jasotzen dituen ekintzak dira antolaketa-neurriak.

Jarraian, neurriak zein diren, zer helburu duten, zer ekintza nagusi jarriko diren abian, nork gauzatuko dituen eta zein epetan egingo duen azalduko da.



# Gizarte-eragileen koordinazioa

## Zer lortu nahi dugu?

Herritartasun, kulturartekotasun eta immigrazioaren sektorean lan duten gizarte-eragileen sistemaren koordinazioa hobetzea.

## Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Zuzendaritza, Biltzen, Ikuspegi, Aholku Sarea, Eraberean, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernuaren ordezkariak, aldundiak, udalak, Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa, hirugarren sektorea, eta abarren arteko koordinazioa eta baterako lana indartu.**

**Zertarako egingo da?** Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren ekintza politikoaren eta programen oinarriak jartzeko.

**Noiz?** 2021 eta 2022an.

**2. Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroa: bere batzordeak birbideratu eta foroa arautzen duen dekretua eguneratu.**

**Zertarako egingo da?** Bere egitura, helburuak eta funtzioak egungo beharretara egokitzeko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**3. Biltzen: bere helburuei buruz hausnartu, egungo testuingurura eta bere beharretara egokitzeko; bizikidetzaren aldeko tokiko esku-hartze taldeak sortu.**

**Zertarako egingo da?** Bere helburuak eta egitura birbideratzeko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**4. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren dirulaguntza-lerro propioa sortu (orain arte Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren mende egon da).**

**Zertarako egingo da?** Esleipen-irizpideak Plan honekin bat etor daitezen.

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Sailburuordetza.

**Noiz?** 2024an.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

## 5. Esku-hartze sozialaren eremuko jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen 271/2012 Dekretua eguneratu, balorazio-irizpideak, gehieneko zenbatekoak eta emateko lerroak berrikusita

**Zertarako egingo da?** Hirugarren sektoreko erakundeentzako dirulaguntzak Plan honekin bat etor daitezten.

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Sailburuordetza  
(Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.)

**Noiz?** 2022tik 2025era.

## 6. Gobernu zentralaren ordezkariordetzekin eta Kotsulatuekin lan-harremanak formalizatu.

**Zertarako egingo da?** Zuzendaritzak ordezkariordetzekin eta kotsulatuekin dituen koordinazio-harremanak hobetzeko.

**Noiz?** 2022tik 2023ra.

## 7. Eusko Jaurlaritzako sailekin lankidetzak hitzarmenak egin, Ikuspegik haien datuak eskura ditzan.

**Zertarako egingo da?** Ikuspegiri Eusko Jaurlaritzako sailen, Lanbideren, Eustaten, Hezkuntza Sailaren eta abarren datuak (pertsonalizatu gabeak) edukitzea errazteko, bere ikerketak egiten eta Sailaren politika publikoak hobeto orientatzen laguntzeko.

**Noiz?** 2022an.

## 8. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko eta Migrazio eta Asilo Zuzendaritzako teknikarientzako urteko prestakuntza-plan bat egin.

**Zertarako egingo da?** Langileei prestakuntza emateko, bai gai orokor batzuen ingurukoa (besteak beste, herritartasuna, immigrazioa eta kulturartekotasuna), bai gai espezifiko batzuen ingurukoa, Euskadiko migrazio-fenomenoaren ikuspegi egokia izan dezaten.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

## 9. Erakundeekin koordinatzeko urteko lan-plan bat egin, Aldundietako eta Udaletako langileentzat (bilerak 3 hilean behin).

**Zertarako egingo da?** Foru-aldundietako eta udaletako teknikariek in hausnartzeko eta eztabaidatzeko gune bat izateko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

## 10. Errotzeari, etxebizitza egokitzeari eta integratzeko ahaleginari buruzko txostenak udalek egin ahal izateko modua aztertu.

Eskumena autonomia-erkidegoarena izan arren, udalerriek egin ditzakete, Immigrazio eta Emigrazioko Estatu Idazkaritzari jakinarazten badiote. Lan hori eskualdatzeko Eudelekin negoziatu behar da.

**Zertarako egingo da?** Txosten horiek udal-politikekin lotuago egoteko eta harrera-eta erregularizazio-prozesuak errazagoak izan daitezen.

**Noiz?** 2024an.

## 11. Hainbat publikori online ikastaroak eskaini, kulturartekotasun-gaitasunen arloko prestakuntza jaso eta sentsibilizatzeko: atzerritar jatorriko pertsonen eskubideak ezagutu ditzatela.

**Zertarako egingo da?** Administrazioetako langileei (hezkuntza, osasuna, segurtasuna...), gizarte-eragileei, enpresaburuei, hirugarren sektoreko elkarteei... online prestakuntza emateko.

**Arduraduna:** Biltzen.

**Noiz?** 2022an.

## 12. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren webgunearen edukiak eguneratu.

**Zertarako egingo da?** Komunikazioa 6. Planaren helburuetara, antolaketara eta jarduera-ildoetara egokitzeko.

**Noiz?** 2022an.


**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

Berdintasun,  
Justizia  
eta Gizarte  
Politiketako  
Sailaren  
Komunikazio  
Zuzendaritza



Programa betetzeko hainbat eremutan garatu nahi diren ekintzak dira neurri programatikoak.

Jarraian, neurri horiek zein diren azaltzen da, arloka (hezkuntza, enplegua eta prestakuntza, elkarbizitza, hizkuntzen ikaskuntza, osasun-hobekuntza, etxebizitza, arki juridikoa eta ekonomia), baita zer helburu dituzten eta helburuak betetzeko zer ekintza nagusi abiatuko diren ere.



# Hezkuntza-neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Ikasle guztien eskola-garapena eta -arrakasta lortzea, inklusioa ziurtatuz eta pertsona bakoitzari behar dituen laguntzak eskainiz.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Atzerritar jatorriko familiek beren seme-alaben ikastetxeetan prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko guneak sortu.**

**Zertarako egingo da?** Familia horiek hezkuntza-komunitatean sar daitezen bultzatzeko eta eginkizun aktiboagoa emateko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Ikastetxeak inklusiboak izatea, bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren printzipioetan oinarrituak.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu, atzerritar jatorriko ikasleen beharrei erantzuteko.**

**Noiz?** 2022an.

**2. Atzerritar jatorriko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek euskara eta gaztelania ikasteko baliabide gehiago jarri.**

**Zertarako egingo da?** Ez gaztelaniaz ez euskaraz hitz egiten ez duten atzerritar jatorriko ikasleen eskola-porrota saihesteko.

**Arduraduna:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

**Noiz?** 2023tik 2025era.

**Arduradunak:**  
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.  
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza eta Biltzen.

### 3. HELBURUA

#### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorriko adingabeekin lan egiten duten eta bizi diren pertsona guztiei kulturartekotasunaren eta kultura-aniztasunaren arloetako prestakuntza ematea eta kontzientziatzea.

#### Zer egingo dugu hori lortzeko?

##### 1. Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei kulturartekotasunaren arloko prestakuntza eman.

**Zertarako egingo da?** Profesionalak prestatzeko, ondoren beren ikastetxeetako irakasleei prestakuntza eman ahal izan diezaieten.

**Arduraduna:** Biltzen. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2023an.

##### 2. Atzerritar jatorriko familiek Euskadiko ikastetxeetan duten parte-hartzearen inguruko esperientzia arrakastatsuak bildu eta zabaldui.

**Zertarako egingo da?** Beren seme-alaben ikastetxeetan familia gehiagok parte hartzea lortzeko.


**Arduraduna:** Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022-2023an

##### 3. Lantalde bat sortu, atzerritar jatorriko adingabeak beren ikastetxeetan sartzeak udalerrietan dituen ondorioei buruz hausnartzeko.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.



# Enplegurako eta prestakuntzarako neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorriko adingabeekin lan egiten duten eta bizi diren pertsona guztiei kulturartekotasunaren eta kultura-aniztasunaren arloetako prestakuntza ematea eta kontzientziatzea, enpleguarekin eta prestakuntzarekin lotuta.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Lanbideko teknikariei atzerritar jatorriko pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza eman.**

**Zertarako egingo da?** Kulturartekotasunaren arloko prestakuntza sailletako eta erakundeetako profesional gehiagorengana zabaltzeko.

**Arduradunak:** Biltzen. Lanbide. Ikuspegi.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Lan-orientazioko prozesuak hobetzea, atzerritar jatorriko pertsonentzat eskuragarriagoak izan daitezen eta enplegua lortzen lagun diezaieten.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Etorikin helduen artean euskara eta gaztelania ikastea sustatu.**

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonen prestakuntza jasotzea eta enplegua lortzea errazteko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**2. Hezkuntza Sailaren prestakuntza-edukiak berrikusi eta eguneratu.**

**Zertarako egingo da?** Prestakuntzetan beharrezkoak diren gaiak lantzeko, adibidez: atzerritar jatorriko pertsonen eskubideak eta betebeharrak eta beste kultura-eduki batzuk.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**Arduradunak:** Hezkuntza Saila (HHE). Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.



### 3. Enplegurako prestakuntzari buruzko material berriak sortu, hainbat hizkuntzatan.

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonen lan-orientazioa jasotzea errazteko.

**Arduraduna:** Lanbide.

**Noiz?** 2023an.

### 4. Etorकिनak laneratzeko laguntzen deialdiak berrikusi.

**Zertarako egingo da?** Laguntzen deialdiak lan bila dabilen etorkinen egoera eta beharretara hobeto egokitzea lortzeko.

**Arduraduna:** Lanbide. Biltzen. Ikuspegi. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

## 3. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorriko pertsonen lana aurkitzeko gaitasun behar dituzten oztupoak murriztea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Lan-baimenik ez duten pertsonak kontratatzeko enplegu eta prestakuntzarako Programa gauzatu.

**Zertarako egingo da?** Lana lortzeko zailtasun gehien dituzten etorkinek aukera gehiago izan ditzaten.

**Arduraduna:** Lanbide. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2023tik 2025era.

#### 2. Beren herrialdetik kanpo lan egiteko baimenik ez duten etorkinen gaitasun profesionalak aitortzeko plan bat sortu.

**Zertarako egingo da?** Pertsona horiek lana lortzeko orduan aukera-berdintasuna izan dezaten.

**Arduraduna:** Hezkuntza Saila. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2023an.

### **3. Atzerritar jatorriko pertsonen enplegurako prestakuntzei eta aurreko lan-esperientzia baliozkotzeko moduari buruzko informazioa eman.**

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonen lana aurkitzeko aukera gehiago izan ditzaten.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

### **4. Euskadiko enpresetako langileei etorkinak laneratzeari buruzko prestakuntza eskaini.**

**Zertarako egingo da?** Enpresak pertsona horien errealitateaz kontzientziatzeko eta haiek hainbat lanpostutan sartzeak dakartzan onurez informatzeko.

**Noiz?** 2023an.

## **4. HELBURUA**

### **Zer lortu nahi dugu?**

Atzerritar jatorriko pertsonen enplegurako prestakuntza eta trebetasunak hobetzea.

### **Zer egingo dugu hori lortzeko?**

#### **1. Etorkinek teknologien erabilerari buruzko prestakuntzan parte hartzea erraztu.**

**Zertarako egingo da?** Lana aurkitzeko aukera gehiago izan ditzaten.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

#### **2. Atzerritar jatorriko pertsonentzat lan-prestakuntza espezifikoak sortu.**

**Zertarako egingo da?** Lana bilatzeko orduan dituzten behar bereziei erantzuteko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**Arduraduna:**  
Lanbide.

Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.



# Bizikidetzaren aldeko neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Euskadiko udalerrietan kulturarteko bizikidetza hobetzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei etorkinen gizarteratzearen alde lan egingo duten teknikariak kontratatzeko ematen zaizkien laguntzei eutsi.**

**Zertarako egingo da?** Euskadiko udalerrietan kolektibo horren gizarteratzearen alde lan egiten duten pertsonen sare bat osatzeko.  
**Noiz?** 2022tik 2025era.

**2. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei etorkinak komunitatean sartzeko ekintzak antolatzeke ematen zaizkien laguntzei eutsi.**

**Zertarako egingo da?** Udalerrietan kultura-aniztasuna eta kultura guztiekiko errespetua sustatzeko.  
**Noiz?** 2022tik 2025era.

**3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udalek kulturarteko bizikidetza sortzeko egiten duten lana babestuko duten 3 talde sortu Euskadin.**

Euskadiko probintzia bakoitzeko talde bat sortuko da.  
Talde bakoitza Biltzeneko bi pertsonak osatuko dute.

**Zertarako egingo da?** Plan honen printzipioak Euskadiko udalerrri guztietara zabaltzeko.  
**Noiz?** 2023an.

**4. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei informazioa hainbat hizkuntzatarara itzultzeko eta interpretatzeko sistema bat izateko ematen zaizkien laguntzei eutsi.**

**Zertarako egingo da?** Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dituzten etorkinei gizarteratzen laguntzeko.  
**Noiz?** 2022tik 2025era.

### Arduraduna:

Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

Udalak. Eudel.

Udalak. Eudel.

Biltzen.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Euskal gizartea sentsibilizatzea atzerritar jatorriko pertsonen aurkako arrazakeriarekin, diskriminazioarekin eta aurreiritziekin amaitzearen garrantziaz.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Euskal herritarrei, oro har, kulturartekotasunaren eta etorkinen gizarteratzearen inguruko prestakuntza eman eta sentsibilizatu.**

**Nork emango du prestakuntza?** Atzerritar jatorriko pertsonekin lan egiten duten erakundeek.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**2. Ertzaintzari eta udaltzaingoei kulturartekotasunaren eta etorkinen gizarteratzearen arloko prestakuntza eman eta sentsibilizatu.**

**Nork emango du prestakuntza?** Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko prestatzaileek.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**3. Etorkinei tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntza eman.**

**Non emango da prestakuntza?** Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta HHEetan.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

**4. Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako langileei kulturartekotasunaren eta etorkinen gizarteratzearen arloetako prestakuntza eman eta sentsibilizatu.**

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

**Arduraduna:**  
Biltzen.



### **5. Arrazakeriaren, diskriminazioaren eta aurreiritzien aurka borrokatzen den Zurrumurruen Aurkako Sareari (ZAS) laguntza ekonomikoa eman.**

Biltzenek, Ikuspegik, udalek eta Euskadiko gizarte-erakundeek osatzen dute sare hori.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

### **6. Komunikazio Zuzendaritzaren komunikazioetan Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren kulturartekotasunaren mezua sartu.**

**Zertarako egingo da?** Euskadin bizi den kultura-aniztasuna islatzeko eta zabaltzeko.

**Noiz?** 2023an.

### **7. Euskadiko komunikabideekin akordio bat sinatu, argitaratzen dituzten immigrazioari buruzko informazioek kulturartekotasunaren eta kultura guztiekiko errespetuaren printzipioak bete ditzaten.**

**Zertarako egingo da?** Komunikabideek etorkinei ematen dieten tratua hobetzeko.

**Noiz?** 2022an.

## **3. HELBURUA**

### **Zer lortu nahi dugu?**

Euskal gizartean kultura-aniztasunarekiko errespetua eta kulturen arteko ulermena ikusaraztea.

### **Zer egingo dugu hori lortzeko?**

#### **1. Euskal agintariek Euskadiko gizartean bizi diren askotariko kulturentzat garrantzitsuak diren egun eta ekitaldietan parte-hartuko dute.**

**Zertarako egingo da?** Askotariko kulturentzat garrantzitsuak diren egun guztiei aitortpen bera egiteko.

**Noiz?** 2022an.

#### **2. Euskadiko auzo eta udalerrietan kulturen arteko harremana eta jarduera partekatutak sustatzen dituzten jardueri buruzko informazioa bildu.**

**Zertarako egingo da?** Jardunbide egokien dokumentu bat sortu, udaletara zabaltzeko eta etorkinekin lan egiten duten teknikariek gida gisa erabiltzeko.

**Arduraduna:** Biltzen.

**Noiz?** 2023 eta 2024an.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza



# Hizkuntzak ikasteko neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorria edo nazionalitatea duten pertsonen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Udalerrietan euskara ikastea sustatzeko egin diren ekintzak jasotzen dituen dokumentu bat sortu.**

**Zertarako egingo da?** Udaletako teknikariei euskara ikasteko jardunbide egokien gida bat eskaintzeko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**2. Euskararen irakaskuntzan diharduen HABE erakundearekin beste lankidetzak hitzarmen bat sinatu.**

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza bultzatzeko.

**Noiz?** 2022an.

**3. Euskara modu autonomoan ikasteko aplikazio mugikor bat zabaldu.**

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonen artean euskararen ezagutza hobetzeko.

**Arduraduna:** Hizkuntza Politikarako.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.

**4. Udalerrietako teknikariek osatutako lantalde bat sortu, hizkuntzaren ikaskuntzari eta immigrazioari buruz hausnartzeko**

**Zertarako egingo da?** Udalerrietako hizkuntzen ikaskuntzaren egoera zein den jakiteko eta irtenbide bateratuak bilatzeko.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Hainbat erakunde eta elkarteri euskara, gaztelania eta beste hizkuntza batzuen ikaskuntza nola sustatu daitekeen erakustea eta kontzientziatzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Udaletako eta etorkinekin lan egiten duten erakundeetako langileek hizkuntzak ikasteko ikastaroak antolatu.**

**Zertarako egingo da?** Hainbat kulturatako pertsonekin lan egiten duten profesionalen artean hizkuntzen ezagutza hobetzeko.

**Arduraduna:** Hizkuntza Politikarako.

Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.



## Osasunari eusteko eta hobetzeko neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorriko pertsonen osasun-arreta gainerako biztanleen baldintza berberetan jasotzeko aukera izatea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Ikerketa bat sortu, etorkinek osasun-laguntza publikoa gainerako herritarren baldintza berberetan eskura dezaketean ikusteko.**

**Zertarako egingo da?** Etorkinen osasun publikoko eskubideetan aurrera egiteko.

**Arduraduna:** Ikuspegi.

**Noiz?** 2022tik 2025era

## 2. Beren seme-alabak hemen bizi direlako Euskadira iristen diren adineko etorkinei osasun-laguntza eman.

**Zertarako egingo da?** Euskadira iristen diren adineko etorkinak osasun-laguntzarik gabe ez geratzeko.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza. Foroko Osasun Batzordea.

**Noiz?** 2023 eta 2024an.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Osasun-zentroetan eta ospitaleetan atzerritar jatorriko pertsonak kulturartekotasunean eta kultura-aniztasunean oinarrituta tratatzeko prestatuta dauden langileak izateal.


### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Osasun-zentroetan lan egiten eta laguntzen duten pertsonen prestakuntza eman, etorkinekin kulturartekotasunean eta kultura-aniztasunean oinarritutako harremanak izan ditzaten.


Prestakuntza hori osasun-langileentzat, osasun-langile ez direnentzat eta praktikak osasun-zentroetan eta ospitaleetan egiten dituzten ikasleentzat izango da.

**Arduraduna:** Biltzen.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.







# Etxebizitzarekin lotutako neurriak

## 1. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Etxebizitzarekin lotutako erakundeetan edo enpresetan lan egiten duten pertsonak etorkinen etxebizitza-premien inguruan sentsibilizatzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Euskadiko etxebizitza-arloko araudiari buruzko azterlan bat egin eta kulturarteko ikuspegia txertatzeko beharrezkoak diren aldaketak proposatu.**

**Zertarako egingo da?** Etorkinen etxebizitza eskuratzeko baldintzak hobetzeko.

**Noiz?** 2023an.

**2. Higiezin agentzietan lan egiten duten profesionalei prestakuntza ematea, etorkinak kulturartekotasunean eta gizarteratzean oinarrituz tratatu behar diren inguruan.**

**Zertarako egingo da?** Etorkin askok etxebizitza bat lortzeko jasaten dituzten diskriminazio-egoerak murrizteko.

**Noiz?** 2023 eta 2024an.

### **Arduradunak:**

Biltzen.  
Etxebizitzaren  
Behatokia.  
Ikuspegi.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzeritar jatorriko pertsonak EAEko gainerako herritarren baldintza berberak izatea etxebizitza eskuratzeko.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Euskadiko etxebizitza-arloko araudiari buruzko informazio-materialak sortu, hainbat hizkuntzatan.**

**Zertarako egingo da?** Gaztelania edo euskara menderatzen ez duten pertsonak Euskadiko etxebizitza-arloko araudia ezagutu ahal izan dezaten.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.

### 3. HELBURUA

#### Zer lortu nahi dugu?

Euskal Administrazioak ez bideratzea eraikin osoak edo eremu jakin batzuk etorkinentzako soilik diren etxebizitza sozialetara.

#### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Aldatu behar diren irizpideak aldatu, atzerritar jatorriko pertsonak bakarrik bizi diren eraikin osorik edo eremu espezifikorik ez izateko.**

**Zertarako egingo da?** Atzerritar jatorriko pertsonak gizarteko gainerako pertsonekin modu errealagoan gizarteratzea ahalbidetzeko.

**Erantzuleak:** Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Behatokia.

**Noiz?** 2023an.



## Neurri juridikoak

### 1. HELBURUA

#### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorri edo nazionalitateko pertsonentzat kalitatezko eta doako lege-laguntza.

#### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Atzerritar jatorri eta nazionalitateko pertsonen Aholku Sareak eskaintzen duen lege-laguntza ematen jarraitu.**

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**2. Euskal Autonomia Erkidegoko probintzia bakoitzean batzorde bat sortu, beren herrialdetik kanpo bizitzeko edo lan egiteko baimenik ez duten etorkinei gizarteratzeko eta laneratzeko lege-laguntza emateko.**

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

## 2. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari lege-laguntza ematea, Atzerritarrei buruzko Legeak etorkinentzat ezartzen dituen eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Biltzen erakundearen lege-aholkularitzako zerbitzuei eutsi.

Biltzenek Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari laguntza eta aholkularitza ematen dizkio immigrazioarekin lotutako lege-gaietan.

**Arduraduna:** Biltzen.

**Noiz?** 2022tik 2025era.

## 3. HELBURUA

### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorri eta nazionalitateko pertsonak gainerako euskal herritarren eskubide, zerbitzu eta gizarte-baliabide berberak izatea bermatzea.

### Zer egingo dugu hori lortzeko?

#### 1. Gizarte-baliabideak eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak eta etorkinek baliabide horiek eskuratzeko dituzten oztupoak aztertuko dituen txosten bat egin.

**Noiz?** 2023an.

#### 2. Banketxeei legez atzerritar jatorriko pertsonen oinarrizko kontu bat irekitzeko betebeharra dutela gogorarazteko kanpaina bat egin.

**Noiz?** 2022an.

#### 3. Udalei beren udalerrietan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen, legeak baimendutako kasuetan, boto-eskubidea dutela gogorarazteko kanpaina bat egin.

**Noiz?** 2022an.

#### 4. Kirol-taldeak eta Gobernuaren ordezkariordetzen artean bitartekaritza egin, egoitza-baimenik ez duten gazteek kirola gainerako gazteen baldintza berberetan egin ahal izateko legeko neurriak aplikatzeko..

**Noiz?** 2022tik 2025era.

**Arduraduna:**  
Migrazio eta Asilo  
Zuzendaritza.

Aholku Sarea.



## Neurri ekonomikoak

### 1. HELBURUA

#### Zer lortu nahi dugu?

Atzerritar jatorri edo nazionalitateko pertsonekin lan egiten duten erakunde eta elkarteei laguntza ekonomikoa ematea.

Bereziki, gizarte-egoera ahulean dauden pertsonekin lan egiten dutenei.

#### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak atzerritar jatorri edo nazionalitateko pertsona eta familiekin lan egiten duten erakunde eta elkarteei dirua bideratuko die, haien behar espezifikoak erantzuteko.**

**Arduraduna:** Gizarte Politiketako Zuzendaritza. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022tik 2025era.



## Ikerketa-neurriak

### 1. HELBURUA

#### Zer lortu nahi dugu?

Euskadiko immigrazioari buruzko kalitatezko informazioa biltzea, erabaki politiko, ekonomiko eta sozial hobeak hartu ahal izateko..

#### Zer egingo dugu hori lortzeko?

**1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek etorkinei eta atzerritar jatorriko edo nazionalitateko pertsonen eta familien buruzko iritzia buruzko urteko ikerketa bat egin, haien premia espezifikoak erantzuteko.**

**Arduraduna:** Ikuspegi.

**Noiz?** 2022 eta 2025ean.

## 2. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek aniztasunari eta diskriminazioari buruz duten iritzia ezagutzeko ikerketa bat egin.

**Arduraduna:** Ikuspegi. Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2024an.

## 3. Atzerriko Etorकिनен gaineko Inkestan oinarritutako ikerketa bat egin, beren egoera zein den eta Euskadin bizitzen nola sentitzen diren adieraz dezaten.

**Arduraduna:** Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organoa.

**Noiz?** 2024an.

## 4. Etorकिनak erroldatzeko sistemari buruzko ikerketa bat egin.

Alderdi positiboak eta negatiboak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

**Arduraduna:** Ikuspegi.

**Noiz?** 2022an.

## 5. Hiru gai interesgarri aukeratu, aztertu eta lortzen diren emaitza praktikoetan oinarrituz txosten bat egin.

**Arduraduna:** Biltzen.

**Noiz?** 2022tik 2024ra.

## 6. Euskadiko udalerrietan kulturartekotasuna eta kultura aniztasuna lantzeko moduak aztertu eta alderatu.

**Arduraduna:** Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.

**Noiz?** 2022 eta 2023an.